

EUSKAL ZINEMAREN GALA



Esther Cabero eta Txema Muñoz Zinemira Saria jasotzen, hunkituta eta pozik.

JORGE FUENBUENA



Belako taldeko kideak, hirukote formatuan, zuzenean jotzen, atzo.

JORGE FUENBUENA

Talentuen hazitegiari omenaldia egin diote Euskal Zinemaren Galan

IRENE ELORZA

Aurtengo Zinemira saileko filmetako protagonistak hezur eta haragi egin ziren, atzo, Victoria Eugenia ospatu zen Euskal Zinemaren Galan. *Pandemic Tour 2020* Belako filmeko izarrak izan ziren teloaia altxatzen, hirukote formatuan euren musika zu-

zuzenean jotzen. Ondoren, Irizar Sarirako hautagiak diren fikziozko eta ez-fikziozko filmetako hainbat protagonistek egin zituzten euren filmen aurkezpen laburra.

Hasteko eta behin, *Maixabel*, *Bolante baten historia* eta *Paperezko hegoak* filmetako ardatz diren Maixabel Lasa, Eneko Etxeberria eta Mar-

txelo Otamendik hartu zuten hitza. Ahantzuraren kontra film eta dokumentalak egitearen garrantzia azpimarratu zuten. Segidan, Aitor Merino, Maru Solores eta Maider Oleaga zuzendariak euren dokumentalak aurkeztu zituzten jendaurrean, *Fantasia*, *Aztarnak* eta *Kuarkt Valley*, hurrenez hurren.

Erlauntza film koraleko aktoreek umorearen eztena sartu zioten galari eta Kimuak programari saria eman aurreko bideoa aurkeztu zuten. Bertan, hasiberriak zirenean Kimuak parte hartu zuten aurpegi ezagun ugarik (Cobeaga, Hernández, Serra, Moriartitarrak, Almandoz, Malo, Vicario, Herguera eta Altuna) programaren

garrantzia azpimarratu zuten eta bultzatu dutenei esker ona adierazi zieten. Haietako bi, Borja Cobeaga eta Jone Hernández, oholtzara igo ziren Kimuakeko gaur egungo ordezkariak Zinemira Saria ematera. Txalo zaparrara artean jaso zuten garaikurra Txema Muñozek eta Esther Caberok. Biek ala biek programa posible egin duten erakunde publiko zein pribatu eta gizabanako guztiak izan zituzten gogoan.

Asier Altunaren *Hondalea: abismo marino* dokumental berria proiektatu aurretik, Belakok *The Craft* abestu zuten: "Gurea da boterea eta orain da unea" hitzekin bukatu zen gala.

